



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**UDALAREN PREMIAZKO BILKURAREN AKTA**

**BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

**zinegotziak**

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2013ko urriaren 3an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

**GAIAK**

**LEHENA. PREMIATASUNAREN JUSTIFIKAZIOA**

Alkateak, hitza harturik, dio:

Premiatusunezko bilkuraren justifikazioa, hainbat mozio epean onartu beharra da.

Premiatusunezko bilkura egiteko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**BIGARRENA. MOZIOAK**

**HERRIRA plataformako atxilotuei buruzkoa.**

Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken urteetan. Aldaketa politiko sakona izan da ETA erakundeak erabaki eta adierazi izana 2011ko urriaren 20an bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera.

Herri hau, giza eskubide guztien onarpenean eta defentsan oinarrituz, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz eraiki behar dela, herri honen gehiengoak aspaldi egindako hautua da.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

Aste honetan, “Herrira” plataformako kideak, atxilotu dituzte. “Dena ETA da” tesiari eutsiz egin dituzte atxiloketak, Euskal Herrian bake prozesua bultzatu eta finkatzeko bidean atzeraldia suposatzen dutelarik.

Euskal Herriko erakundeek eta gizartearen gehiengo nabarmenak euskal presoak jasaten ari diren oinarrizko eskubideen urraketak behin eta berriz salatu dituzte, legeak, zuzenbide internazionalak eta giza eskubideen deklarazioak presoek aitortzen dizkien eskubideak defendatzea zilegia dela adieraziz.

Oinarrizko eskubideen etengabeko zapalketak ez dira inolaz ere lagungarri gure Herriak bizi duen soluzio bilaketarako. Soluzioa baitator batetik, oinarrizko eskubide ororen errespetatzeak eta bestetik, gure Herriak bizi duen gatazka politikoa itxiko duen akordio politikoa lortzetik; beti ere gure Herriak bere etorkizun politikoa erabakitzeko duen eskubide demokratikoa oinarri hartuta.

Erakunde politikoen ilegalizazio prozesuek eten egiten dituzte oinarrizko eskubide diren ideologia, adierazpen, elkartzeko eta partehartze aldarrikapen demokratikoak; euskal gizartearen aniztasun politikoari zor zaion errespetuari eragiten diote zuzen zuzenean, eta baita gure herriko elkarbizitzari ere; eta guztiz urruntzen gaituzte euskal gizarteak behin eta berriz eskatzen duen normalizazio politiko eszenatokietatik.

1. LIZARTZA-ko udalbatzak PPren Gobernuaren eta Auzitegi Nazionalaren estrategia politiko-judizial partekatua salatzen dute, “dena ETA da” tesia aktibatzeagatik, ETAk duela ia bi urte ekintza armatuaren behin betiko etena aldarrikatu zuela jakitun izan arren eta ETAREN erabakiaren irrebetsibilitatea eta egiazkotasuna egiaztatzeko ardura politikoa bere gain hartu beharrean, eta bake prozesua bultzatu beharrean, aipatu taldearen ekintzak irauten duen ideia berreskuratu nahian dabiltzalako. Zentzu horretan, udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio salaketa honekin bat egin dezan.
2. LIZARTZA-ko udalbatzak euskal herritarren eskubide zibil eta politikoen errespetua eta “Herrira”ren baitan euskal presoek oinarrizko eskubideen alde lanean ari zirenean atxilotutako pertsona guztien askatasuna, eskatzen dituzte. Zentzu horretan, udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio eskaera honen defentsa egin dezan.

## **MOZIOA**

Pasa den astelehenean, Auzitegi Nazionalaren aginduz, Herrira mugimendu sozialaren aurkako operazio poliziala burutu eta hamazortzi euskal herritar atxilotu



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

zituen Guardia Zibilak. Iraganeko gertakariak ziruditenak errepikatu ziren tamalez gure herrietako kaleetan.

Egoera berri bat ireki da Euskal Herrian bereziki ETA erakundeak behin betiko su etena iragarri zuenetik. Aitzitik, PPren gobernuak hasieratik uko egin dio errealitate berri honi eta gatazka behin betikoz konpontzeko dagoen aukerari muzin egin dio.

Are gehiago, gatazka armatuaren baitan sortutako estatu estrategia eta baliabide guztiak bere horretan dira. Euskal presoek eskubideak ez errespetatzeaz gain, gure herrian oinarritzko askatasun demokratikoak oraindik orain ez dira aintzat hartzen. Egoera horien baitan kokatu behar da hain zuzen Herriraren aurka Auzitegi Nazionalak burututako operazioa.

Euskal presoek euskal herriratzearen eta euren eskubideen aldeko gehiengo sozial, sindikal eta politikoa dago gure herrian eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako jarreratik abiatuta, Herriraren eta atxilotutako hamazortzi kide horien lana, aipatu gehiengo sozial horri begirako ekimenak eta elkarguneak eskaintzea zen. Hau da, giza eskubide guztien errespetuan oinarrituz, gehiengo baten aldarrikapenaren alde egitea.

Burututako operazio polizial honek hain zuzen lan hori oztopatzea du helburu, gehiengo sozial, sindikal eta politiko horren aldarrikapena kaleetatik ateratzea, ezkutatzea. Giza eskubideen aldarrikapena dena kriminalizatzea. Eta unea ere ez da kasualitatea, hain zuzen ere Estrasburgoko Epaitegiak betirako kartzelaratzea ezartzen duen doktrinaren epaia publiko egitera doanean. Konponbide prozesu batek guztion ekarpenak eskatzen dituzenean, PPren gobernuak, iraganeko errezetekin erasotzen du egoera berria; konponbidearen aukerari kalte izugarria eraginez.

Guzti horrengatik udal honek ondoko ebazpenak onartu nahi ditu:

- 1.- LIZARTZAKo Udalak Herriraren kontra burutu den operazio poliziala eta atxilotetak herri hone gehiengoari eta konponbide prozesuari egiten zaizkion eraso gisa ulertzen dituela azaldu nahi du.
- 2.- LIZARTZAKo Udalak Herriraren kriminalizazioa helburu izan dezaketen ekimenak bertan behera utzi eta atxilotutakoen berehalako askatasuna eskatzen du.
- 3.- LIZARTZAKo Udalak euskal presoek euskal herriratzea eta bere eskubide guztien aldarrikapena bere egiten du, giza eskubide guztien errespetuaren alde dagoen



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

bezalaxe. Norabide horretan larunbat honetarako deituta dagoen manifestazio nazionalarekin bat egiten dugu.

- 4.- Presoen eskubideen errespetuaz gain, gatazka politiko eta armatuaren parte diren gobernu, alderdi eta eragile guztiei prozesuari etengabeko ekarpena egin eta jarrera eraikitzearen bitartez laguntzea eskatu nahi diogu.

Aurkeztutako mozioak aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 19:30etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK

Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK

Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia